



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados
Dictamen de Comisión Informativa

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak
Informazio Batzordearen Irizpena

AYT/CIP/39/2017

ORG11114P

Código de validación/Balidazio kodea
314D5K4D1O3G2L4V13ZZ



Gai Orokorren eta Udalbatzarrak aztertu beharreko gaien Informazio-batzordeak 2017ko azaroaren 21ean hartutako erabakiz Bozeramale-Batzordearen iritzipean jarriko da "Azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna" Erakunde Adierazpenari buruzko ebazpen-proposamena.,organo horrek, hurrengo bilkurara bertaratzen diren udal-korporazioko kideen gehiengo osoz, gaiari buruz erabaki dezan:

"Azaroaren 25ean Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko Eguna dela-eta Berdintasuneko Udal Sail eta Kontseilutik berriz azpimarratu nahi dugu indarkeria-mota honen izaera estrukturala, gure gizartearen antolamenduan bertan guztiz finkatua egonik, etengabe indartu eta errepikatzen dena.

Nazioarteko zuzenbide-esparrua ere jakitun da badagoela loturarik generoagatiko bazterkeriaren eta indarkeria matxista eta sexistaren artean, horretan jada ez da zalantzarik. Europako erakunde guztiek emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna eragozten duten oztupoak ezabatzeko programak bultzatzea eta sendotzea proposatu dute, emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irtendakoei -umeei ere bai- laguntza-zerbitzua bermatu beharraz gain. Alegia, beharrezkoa dela esku-hartze maila guztietan jardutea: prebentzioa, detekzioa, arreta, babesa, koordinazioa, justizia... bai eta erreparazioa ere. Era berean ezinbestekoa da gizarte osoaren inplikazioa eskatzea eta

Por la Comisión Informativa de Asuntos Generales y de Pleno celebrada el día 21 de noviembre de 2017, se eleva a Junta de Portavoces para que adopte acuerdo al respecto, en la primera sesión que celebre, por mayoría de los/as miembros de la Corporación presentes en la sesión de aquella, sobre propuesta de resolución sobre la Declaración Institucional 25 Noviembre. Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres.

"Con motivo del 25 de Noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, desde el Departamento y el Consejo municipales de Igualdad queremos reiterar el carácter estructural de una violencia que se encuentra muy asentada en la propia organización de nuestras sociedades, donde se refuerza y tiende a reproducirse de manera continua.

El marco jurídico internacional es también consciente del vínculo existente entre la discriminación por motivos de género y la violencia machista y sexista; esto ya no se pone en duda. Todas las instituciones europeas han propuesto que se impulsen y fortalezcan programas para la eliminación de los obstáculos que impiden la igualdad real de mujeres y hombres, además de que se asegure la implementación de aquellos que prestan una atención integral a todas las víctimas y supervivientes de la violencia contra las mujeres, incluidas las niñas y los niños. Es decir, que es necesario actuar en todos los niveles de la intervención: Prevención, Detección, Atención, Protección,

sustatzea.

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko dugun konpromisoa oinarritzat hartuta emakumeen aurkako indarkeriari erantzunean erakundeoi dagokigun erronka da biktimen erreparazio-eskubidea, indarkeria hori giza-eskubideen urraketa-arazo larria delako. Horretarako, eskura izan behar ditugu indarkeriaren eta berorren adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten lagunduko duten baliabideak, deslegitimazio soziala xede harturik. Beharrezkoa da ahotsa eta protagonismoa ematea, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarte eta gainerako antolakunde feminista guztiei, hizketakide legez duten zilegitasuna aitortuz eta eskubideen titular legez proposamenak egiteko eta dagozkien programak ebaluatzeko duten gaitasuna aintzat hartuz.

Erreparazio horren helburua indarkeriaren biktimak eta hartatik bizirik irtendakoak guztiz osatzea izan behar da eta, horrek inplikaturako zerbitzu eta sistema guztiak hobetzea ekarri behar du, horiek guztiak sistematikoki aztertuta.

Horregatik guztiagatik, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean Ermuko Udalak ondokoa adierazten du:

- *Emakumeen aurkako indarkeria giza-eskubideen esparruan kokatzeko bere konpromisoa eta udalaren agenda politikoan horri buruzko hausnarketa, indarkeria matxistari aurre egin behar*


Coordinación, Justicia... y también Reparación. Igualmente, es imprescindible demandar y promover la implicación de toda la sociedad.

En el marco de nuestro compromiso con la construcción de una sociedad igualitaria y libre de violencia, las instituciones debemos asumir el reto de incorporar el derecho a la reparación de las víctimas en la respuesta ante la violencia contra las mujeres, porque ésta es un grave problema de violación de derechos humanos. Para ello es necesario contar con los medios y recursos que permitan visibilizar todos los impactos de esta violencia y todas sus expresiones, contribuyendo a su deslegitimación social. Es necesario dar voz y protagonismo, tanto a las mujeres víctimas de violencia machista como a las asociaciones en las que se agrupan y a otras organizaciones feministas, reconociendo su legitimidad como interlocutoras y su capacidad para realizar propuestas y evaluar los programas que les afectan, como titulares que son de derechos.

Esta reparación debe tener como objetivo la completa recuperación de las víctimas y supervivientes y, por tanto, debe incluir la mejora de todos los servicios y sistemas implicados, a través de su evaluación sistemática.

Por todo ello, en este marco del Día Internacional contra la Violencia hacia las mujeres, el Ayuntamiento de Ermua manifiesta:

- Su compromiso para referir la violencia contra las mujeres al marco de los derechos humanos, y para incorporar en la agenda política municipal la reflexión y el reconocimiento del



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Dictamen de Comisión Informativa

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Informazio Batzordearen Irizpena

AYT/CIP/39/2017

ORG11114P

Código de validación/Balidazio kodea
314D5K4D1O3G2L4V13ZZ



dioten emakumeen erreparazio-eskubidea, halakorik berriz ez gertatzekoa eta guztiz osatzekoaren aitortza sartzeko, indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal izan dezaten.

- *Gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko bere erabakia, emakume-kolektibo eta kolektibo feministekin batera, eta gizarte zibil eta herritar guztiekin oro har, Ermuan bazterkeriari eta indarkeria matxistari aurre egiteko.*
- *Berdintasunaren aldeko udal planak, ordenantzak eta beste neurri orokor eta/edo sektorialak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko bere gogoak, erakunde publiko legez duen konpromisotik abiatuta, eta bai hedabideak bai lan-, kultura-, hezkuntza-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak inplikatur.*
- *Indar sozial eta politiko guztiekin eta erakundeekin itunak eginez, beharrezkoak diren baliabideak emateko bere erantzukizuna, horren xedea emakumeen aurkako indarkeria gure gizartetik desagerrarazten aurrera egitea izanik*

Azaroaren 25 honen ospakizunen inguruan izango diren mobilizazio guztiekin bat egiten dugu eta egun honetan eta urteko egun guzti guztietan emakumeenganako indarkeriaren kontra aktiboki parte hartzeko eta manifestatzeko deia luzatzen diogu

derecho a la reparación, a la no repetición y a la completa recuperación de las mujeres que enfrentan violencia machista, para que puedan ejercer su derecho a una vida libre de ella,

- Su acuerdo para impulsar un cambio estructural en la sociedad, en colaboración con colectivos de mujeres y feministas, así como con la sociedad civil y la ciudadanía en su conjunto, para hacer frente a la discriminación y a la violencia machista en Ermua,
- Su disposición para continuar el despliegue y mejora de los planes municipales de igualdad, ordenanzas y otras medidas, generales y/o sectoriales, desde su compromiso como institución pública, e involucrando a los medios de comunicación, a las y los agentes del ámbito laboral, cultural, educativo, social y económico, así como a todos los hombres y mujeres de nuestro municipio,
- Y su responsabilidad para, a través de alianzas con todas las fuerzas sociales, políticas e institucionales, facilitar los recursos necesarios para avanzar hacia la eliminación de la violencia contra las mujeres en nuestra sociedad.

Nos sumamos a las movilizaciones que se realicen con motivo de la conmemoración de este 25 de noviembre, e invitamos a toda la sociedad a participar de forma activa y a manifestarse en contra de la violencia hacia las mujeres, no solo

jendarte osoari”.

en estas fechas, sino durante todos los días del año”.

BOZKETAREN EMAITZA	RESULTADO DE LA VOTACIÓN
<i>PSE-EE/PSOE: Aldekoak 6</i>	PSE-EE/PSOE: A favor 6
<i>EH Bildu: Aldekoak 1</i>	EH Bildu: A favor 1
<i>EAJ/PNV: Aldekoak 3</i>	EAJ/PNV: A favor 3
<i>Se puede Ermua Ahal da: Aldekoak 1</i>	Se puede Ermua Ahal da: A favor 1
<i>PP: Aldekoak 1</i>	PP: A favor 1
<i>Irabazi: Aldekoak 1</i>	Irabazi: A favor 1